

Lurra: geure etxea

23. saioa

Kreazioa, izadia, liluragarri eta harrigarri agertzen zaigu. Jainko Aitak Kreazioa oparitzen digu, goza eta zain dezagun, eta ez gehiegi ustiatu eta geure onerako baizik erabil ez dezagun. Dei egiten zaigu, beraz, Kreazioaz gozatu eta zain dezagun (Has 2, 15).

SAIOAREN HELBURUAK

Helduak:

- Lurra guztiona eta guztiontzat dela konturatu
- Jainko Aitari eskerrak eman bere opariagatik, Kreazioagatik
- Izadia zaintzeko eta ahulezian dagoen norbaiti arreta eskaintzeko konpromisoa hartu familian

Haurrak:

- Lurra guztiona eta guztiontzat dela konturatu
- Jainko Aitari eskerrak eman bere opariagatik, Kreazioagatik
- "Ekintza on" bat egin: ahulenei arreta eskaini, behar gaituenari jaramon egin, izadia zaindu...

GARAPENA

Saio hau talde handian egingo dugu, nagusi eta txiki batera gaudela eta hasteko, jolastu egingo dugu.

Ekosistema gara...

Partaide bakoitzak kreazioko zein elementu izan aukeratuko du: zuhaitza, txoria, ura, lurra, airea, loreak..., eta zeinuen bidez adieraziko du, gainerakoek asma dezaten. Bakoitzak zer den erabaki ondoren, gainerako beste elementu batekin alderatuz nola dagoen adierazteko zerbait esango du. Esate baterako: Zuhaitza naiz eta txorien bizileku izan naiteke; zuhaitza naiz eta euri-urari esker bizi naiz... Gauza bat esateaz batera, harila jaurtiko diogu elkarri eta horrela ekosistema osatzen duten askotariko elementuak lotuko ditugu. Eta denok ezinbestekoak garela, bizitzeko elkar behar dugula ikusiko dugu.

Orban toxikoa...



Petrolioa isurtzen denean, itsasora zaborra, plastikoa... botatzen denean, zer gertatzen den ulertzean datza. Hasteko, itsasoa marraztuko dugu lurzoruan zatar-paper handi batez, edo eremua aulkiekin mugatuko dugu...

Partaideetako bat olio-orbana izango da eta gainerakoak, arrainak. Olio-orbanaren ukitua jasotzeaz batera, taldekideek elkarri eskua emango diote; horrela, orbana gero eta handiagoa izango da eta arrainak, ordea, desagertu egingo dira. Gero, zer gertatu den komentatu eta nola sentitu garen adieraziko dugu.

Nire zuhaitza aurkituko dut...

Honako joko hau aire librean egitekoa da. Izadia geure zentzumenen bidez antzematean datza. Horretarako, partaideak bikoteka jarriko dira. Bikotekide bati begiak estaliko zaizkio eta begiak estali gabe dituenak bestea eramango du, zuhaitz baten aurrean geldiaraziz. Begiak estalita dituenak, gainerako zentzumenen bidez antzemango du delako zuhaitz hori. Bikotea, abiapuntura itzuliko da. Eta estalkia kenduta, partaideak begiak itxita zituela antzemandako zuhaitza aurkituko du. Lortuz gero, seguruenik "nire zuhaitza aurkitu dut!", oihukatuko du. Jokoa errepikatu bikotekideen rola aldatuz.

Jokoak amaitzeaz batera, bizi izandako sentipenak, esperientziak, jasoko ditugu: nola sentitu gara? Zerk harritu gaitu? Zer iruditu zaigu ondo, zer gaizki...? Zer dugu gustukoaren izaditik? Atsegin duzu mendira joatea? Eta hondartzara? Aurkitu ote duzu noizbait zikinik, zaindu gabe? Zer iruditu zaizu?

Gure eta izadiaren arteko loturaz jabetzea da helburua.

Hasiera liburuko Kreazioaren idazkia irakurtzen jarraituko dugu. Kreazioaren aldeko otoitzaren moldaketa dugu eta 'rezandovoy.org' orrialdetik hartutako haurrentzako bertsioa da.

Has 1, 1-31

Iluntasuna zen nagusi. Inguruan ez zegoen ezer, eta Jainkoa deseroso sentitzen zen. Beraz, buruan hatz egin eta esan zuen: «Zertarako Jainko izan, bakarrik banaiz?». Eta lanari ekin zion. Lehenik eta behin, hustasun hori argiz bete zuen: argia sortu eta oso ondo zegoela iruditu zitzaion. Ondoren, izarrak sortzea bururatu zitzaion, eta planetak, eta hauen mugimendurako legeak. Eta guzti hori ere oso ondo iruditu zitzaion. Adorez beterik, itxasoen ura, landareak, txoriak, arrainak, eltxoak... sortu zituen. Bai, primerako itxura zuen guzti hark. Eta, orduan, ideia bikain izan zuen. Zera pentsatu zuen: «Neure antzeko pertsonak sortuko ditut». Horrela, gizon eta emakumeak sortu zituen. Eta oso ondo zegoela iruditu zitzaion, orain mundua zuelako aurrez aurre eta bertara isuri zezakeelako maitasuna. Gainera, izaki haiek, emakumeak eta gizonak, munduaren zainketaz arduratuko zirela bururatu zitzaion, gauzek ondo iraun zezaten. Beraz, deitu egin zion eta mundu sortu berria, hain gustuko zuena, oparizat eman zion.

Testua komentatuko dugu labur-labur. Bi ideia nabarmendu behar ditugu: Jainkoak Kreazioa oparitzen digu eta zainketaren ardura ematen.

- Nola lagun dezakegu zainketa horretan?
- Zein hartu-eman dugu bizi garen ingurumenarekin?

Elkarrizketa ahalbideratzeko, ondorengo esaldiok edo egokitizat jotzen ditugun beste batzuk idatziko ditugu arbelean edo zatar-paperean:

- Egarki naizenean, beti ura edaten dut
- Egunero..., hiruzpalau aldiz jaten dut; gose naizen bakoitzean
- Batzuetan, jatekoa bota egiten dut... soberan daukat
- Kanean, paperak lurrera botatzen ditut
- Soroan paseatzean, neure airera ibiltzen naiz, loreak zapaltzen ditudan ala ez ohartu gabe
- Dutzatu ez ezik, nahiago dut bainatzea
- Mendian jaten dugunean, ez dugu zaborrik biltzen
- Ibaira, itsasora,... plastikozko botila bat botatzen dudanean, 'bat baino ez da' pentsatzen dut
- Ura eta jatekoa ordaintzeko dirua dudanez,... nahi dudana egiten dut horrekin
- ...

Lokala bitan banatuko dugu: batean, puntu berdea, edo emotikono irribarretsua, edo adostasuna adierazteko hatz lodia gorantz duen eskua jarriko dugu; eta bestean, kontrakoa, bat ez etortzea adieraziz.

Banan-banan eta ozen irakurriko ditugu esaldiak... eta bat datorrena dagokion aldean kokatuko da eta ez datorrena, bestean.

Denek parte hartu ondoren, arrazoiak azaldu. Dinamika bera egingo dugu esaldi guztiekin.

Baieztapen hauen aurrean nola kokatzen garen ikusiko dugu:

- Ingurumenaz, izadiaz, neurritz ala neurritz kanpo baliatzen gara?
- Konturatzen gara lurraren jabetza ez dela geurea?
- Konturatzen gara gure egintzek besteengan eragina dutela?
- Nola...?

Elkarrizketan jardun ongoren, familian konpromisoa hartuko dugu guztion etxea zaintzeko. Konpromiso hori familiaren ohiko bizitzara eraman.

Amaitzeko, Luis Guitarraren abestia kantatuko dugu: *El mundo es de todos*
<https://www.youtube.com/watch?v=LWJlp4aYavI>

Saio honen jarraipen bezala, lurratik eskerrak emateko ospakizuna egin daiteke. Ospakizunak/esperientziak atalean dago proposamen bat.

ETXEAN – FAMILIAN JARRAITZEKO

Saioan landu duguna, familia bizitzara eroatea da kontua. Saioan hartutako konpromisoaz gainera, bi keinu erraz proposatzen ditugu. Etxeko guztiek egiteko modukoak dira eta inguruaren eta pertsonen zainketari begira daude.

Ingurua zaindu:

- Txorrotako ura arduraz erabili. Bainatu ordeztu egingo gara edota txorrota itxi egingo dugu hortzak garbitzen ditugun bitartean.

Pertsonak zaindu:

- Ez gara bakarrik bizi. Inguruan, gure zainketa –gure irribarrea, gure besarkada, entzutea, erosketak etxera eramatea,...- behar duen norbaitez ohartu.

Termometroaren marrazkia jarriko dugu etxean, begi-bistan... Egin ditugun zainketak harri eta termometroa koloreztatuko dugu... Afalostean eta ohera joan aurretik ikusiko dugu "tenperatura"... eta eskerrak emango dizkiogu Jainkoari egindako guztiagatik eta barkamena eskatuko diogu ezer egin ez badugu.

El mundo es de todos abestia ikasi eta gaez abestu, otoitz erara.

Nagusiei bi idazki emango dizkiegu: kreaioari buruzko otoitzak 'Laudato si' entziklikatik hartuta eta Frantzisko Aita Santuaren entziklika honetatik hartutako idazki aukeratuak. Horiez baliatuz, saioan landutakoan sakontzeko aukera izango dute. Entziklika osoa irakurtzeko ere esango diegu.

